

IRAKASLEAK

HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAKO ORDEZKOGAIEN LANPOSTUEN EGONKORTASUNA. ADI!!!

Prozesu honen inguruan argi izan beharreko zenbait gauza:

- Egonkortzeko eskubidea ematen duten lanpostuak nortzuk dira:
 - Haur eta Lehen Hezkuntzan 2020-2021 ikasturtean, urte osorako lanpostu hutsak (bakanteak) eskuratu izatea. Lanpostu horiek osoak edo murriztuak izan daitezke.
 - Lanpostu osoek AUTOMATIKOKI egonkortzeko eskubidea ematen dute eta murriztu eta lanpostu bereziek BORONDATEZ (nahi izanez gero).
 - 2020ko urriaren 1a baino lehen egindako izendapenak, 330 egun baino lehiagoko lan kontratua izatea eta lanpostu hutsa (bakantea) izatea.
- Zein da prozesuaren kronograma eta jarraibidea:
 - **Uztailak 5ean**, egonkortzeko eskubidea sortu duten lanpostuak betetzen dituzten behin behineko langileen zerrenda argitaratu dute.
 - **Uztailak 12an**, egonkortasun eskubidea sortuko duten behin betiko langileen zerrenda argitaratuko da.

KONTUZ!!! Zerrenda horietan AUTOMATIKO jartzeak, iaz hartutako lanpostu motak AUTOMATIKO egonkortzeko eskubidea sortu duela esan nahi du, besterik ez. Hau da, behin behineko irakaslea iazko lanpostuan jarraituko duenik **EZ DU BERMATZEN!**

- **Uztailak 13an**, AUTOMATIKOKI egonkortuak geratuko diren langileen behin zerrenda argitaratuko dute.

Uztailak 5ean argitaratu duten zerrendan akats asko egon dira, beraz ez dira fidagarriak. Batzuk aipatze arren, murriztuan lan egin duten langileek egonkortasun AUTOMATIKOrako eskubidea sortu zaie edo ZZEEn dagoen langilea ordezkatzeko duen interinoari egonkortzeko aukera eman zaio.

Hori dela eta **erreklamazioak aurkeztu** behar dira, epea **uztailaren 6ko 14:00ak arte** izanik.

ADI!!! Hezkuntza Sailak jakinarazi digu, akatsak konpondu ondoren, egun hauetan zehar zerrendak berria aterako dituela.

Presaka eta inprobisatzen ibili dira eta hauek izan dira ondorioak.

STEILASetik behin behineko langileak errespetuz tratatzea eskatzen diogu Hezkuntza Sailari eta benetako egonkortasuna ematea!

www.steilas.eus